



**2016KO MARTXOAREN 22KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko martxoaren hogeita bian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Amagoia Naldaiz Mingo zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko otsailaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 2015EKO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Alkatearen aginduz idazkari kontu-hartzaileak 2015eko aurrekontu likidazioaren berri ematen du, likidazioaren datu esanguratsuenen azalpena eginez.

Honekin lotuta, likidazioa onartu ondoren egin den kreditu txertaketa bidezko kreditu aldaketa espedientearen berri ematen da baita ere.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**IV.- ERAIKUNTZAKO HEGALEN UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA.-**

Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako eraikuntzako hegalkinak arautzeko udal ordenantza, bere espedientearen dagoen testuaren arabera.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du zerbait orokorragoa izango litzekeen lanketa egitea nahiko luketela hirigintzako AA.SS.en gaiaren inguruan, horrelako gauza puntual batera mugatu beharrean.



Alkateak erantzuten dio AA.SS.en aldaketa batek oso luze joko lukeela eta horregatik proposatzen dela ordenantza honen onarpena mugatutako aldaketa hau.

Andonegi zinegotziak esaten du gai honen onarpenaren aurrean informazio gehiago beharko luketela eta gaur mahai gainean uztea eskatuko luketela.

Idazkariak ohartarazten du, gai honen onarpenak legezko gehiengo osoaren aldeko botua beharko lukeela.

Alkateak esaten du guzti honen aurrean, gaia mahai gainean uzten dela.

#### V.- ELOSEGI 30EKO UDAL JABETZAKO LOKALA BESTERENTZEKO DEITUTAKO LEHIAKETA HUTSIK GELDITU DELA ADIERAZTEA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2015eko otsailaren 26an egindako batzarraldian, Elosegi 30eko 2. solairuan kokatutako udalaren jabetzako lokala lehiaketa bidezko besterentzea arautu behar zuten ekonomi eta administratibo klausula plegua onartu zuen eta halaber lizitazioarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazioarako deialdia 2015eko martxoaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskeintzak aurkezteko irekitako hamabost eguneko epean ez zen batere eskeintzarik aurkeztu.

Hau honela deialdia hutsik gelditu izanaren adierazpena onartzea proposatzen da.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botoekin, deialdia hutsik adieraztea onartzen du.

#### VI.- ELOSEGI 30EKO UDAL JABETZAKO LOKALA BESTERENTZEKO LEHIAKETA.-

Lazkaoko Udala Elosegi 30eko 2. solairuan kokatzen den 8,20 m<sup>2</sup>ko lokal baten jabea da.

Lokal honek udalarentzat inolako erabilgarritasunik ez duela, besterentzea planteatzen da eta honetarako prozedura ireki bidez besterentzeko espedientea prestatu da.

Lokalaren balioa, espedientean dagoen txosten teknikoak dioenez, 853,67 € da.

Alkateak esaten du esku aldaketaren gastuak udalaren kontura izango direla eta hori horrela lizitazio prezioa mila eurotan (1.000 €) jarri dela.

Espedientea ikusi ondoren, eta Hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordeak besterentzeko espedientea onartu eta lehiaketa ireki bidez besterentzeko lizitazioarako deialdia egiteko egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, zera erabaki du:



- 1.- Elozegi 30eko 2. solairuan udalaren jabetzako lokala besterentzeko jardunbide ireki bidezko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen orria onartzea.
- 2.- Besterentzearen esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

**VII.- LARREATEGIKO UDAL LURSAILAK BESTERENTZECO DEITUTAKO LEHIAKETA HUTSIK GELDITU DELA ADIERAZTEA.-**

Udal Osoko Bilkurak, 2015eko urriaren 27an egindako batzarraldian, udal planeamenduko Arau Subsidiarioetako 19. H.J.A. -Larreategi-ko 19.1 egikaritze unitatean kokatutako udalaren jabetzako 30.19.1 eta 30.19.2 lursailen lehiaketa bidezko besterentzea arautu behar zuten ekonomi eta administratibo klausula plegua onartu zuen eta halaber lizitaziorako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitaziorako deialdia 2015eko azaroaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskeintzak aurkezteko irekitako hogeita hamar eguneko epean ez zen batera eskeintzarik aurkeztu.

Hau honela deialdia hutsik gelditu izanaren adierazpena onartzea proposatzen da.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botoekin, deialdia hutsik adieraztea onartzen du.

**VIII.- "FEMINISMOTIK ERALDAKETA SOZIALERA" MOZIOA.-**

Hernandez zinegotziak (EH Bildu), mozioaren aurkezle gisa, esaten du, aurrez adierazi dien bezala, aurkeztutako mozioan azaltzen diren 2. eta 7. puntua kendu egiten dituztela.

Hau honela izanda, mozioak honela dio:

**"FEMINISMOTIK ERALDAKETA SOZIALERA**

Nazioarteko Egunak aldarri egunak dira, egoera desorekatuak agerian utzi eta eman beharreko aldaketen aldarri eta borroka egunak.

Martxoaren 8a, emakume langileen borroka testuinguruan kokatzen da, 1908 urtean dihalgintzan prekarioki eta inbisibilizatuki lanean ari ziren emakume langileek grebari eutsi eta EEBBetako hainbat hiritan manifestaldiak burutu zituztenean.

Handik hona, emakume-gizon eta borroka feministari esker, asko izan dira emandako urratsak emakume eta gizonen berdintasunaren alde, baina ezin ahanzi dugu ere, gaurko egunean zoritxarrez, leku ugarian badela eman beharreko pausurik emakumeen eskubide oinarritzkoenak eskuratzeko bidean.

Gertukoan ere, Euskal Herrian bertan, lege eta araudiek berdintasunaren aldeko marko orokorra ezarria badute ere, badugu eman beharreko urrats ugari. Izan ere, berdintasun faltsuaren diskurtsoa hedatzen dihardu, eta honek, berdintasunaren alde aktibatu beharreko neurriak moteldu besterik ez ditu egiten, egoera irreal bat irudikatuz.



Finantza krisiak eragindako murrizketek lehenik, eta ustez bertatik ateratzeko hartutako hainbat neurri ondoren, azken urteotako jazarpen bortitzena eragin dute jendartearen eskubide oinarrikoen galera eraginez, eta bereziki emakumeen eskubideengan. Eta horrela, diskurtso eta praktiken arteko kontraesanak agerikoak ari dira izaten, parekidetasunaren, ekitatearen eta berdintasunaren esparruan.

EHBildutik argi dugu egunerokoa eta guziora lana dela berdintasun erreala lortzeko modu bakarra, bai erakundeetan, zein jendarteetan; lana eta enplegua baldintza duinetan banatua izan dadin, zaintza lanak partekatuta izan daitezten, afektibitatea eta sexualitatea modu anitzean, libreki eta seguruan bizi ahal izan dadin, estereotipoak zein rola gaitzituak izan daitezten, eraso sexual eta sexistak desagertu daitezten, prekarietateak eta pobrezia emakume izena eduki ez dezan, erabakiguneetan aritzeko aukera berak sor daitezten.

Eta hau guztia lortzeko, jendarte eredu berritua eraikitzeko, neurri normatibo, tekniko eta ekonomiko ausartak hartu behar dira, egungo murrizketak alboratuz.

Horregatik, 2016ko martxoaren 8 honetan, Lazkaoko udalerrian ere badelako zer eginik, ondorengo ebazpen proposamena egiten dugu, osoko udal batzak onartu dezan.

- 1.- Lazkaoko udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun saila sortzeko.
- 2.- Lazkaoko udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko.
- 3.- Lazkaoko udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Biolentzia Matxistaren kontrako protokoloa landu eta abian jartzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 4.- Lazkaoko udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko jai eta ospakizunetan parte hartze parekidea landu eta sustatzeko, herriko taldeekin elkarlanean.
- 5.- Lazkaoko udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du I. Berdintasun Plana garatzeko."

Alkateak (EAJ) esaten du mozio horretan jartzen diren gauza asko lehendik egiten ari direla eta ez daukatela inolako eragozpenik ildo horretatik gauzak egiten jarraitzeko. Esaten du baita ere, batzordea sortzearena beharrezkoa ikusten badute, beraiek ez dutela eragozpenik jarriko eta batzorde hori sortuko dela.

Hernandez zinegotziak esaten du badakitela gauza batzuk egiten direla lehendik ere eta bestalde beraiek beharrezkoa ikusten dutela batzordea sortzea

Guzti hau honela, gaia bozketan jartzen da eta, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, mozioa onartzen erabakitzen du.

## IX.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop and a horizontal line.